


ENPRESARIEN KONFIANTZA

EAEko enpresarien konfiantzak hobera egin du


Enpresarien konfiantza indizea



Laboral kutxak osatzen duen enpresarien konfiantza indizeak baikortasuna hauteman du EAEko enpresarien artean 2018ko bigarren hiruhilekoari begira. Zehazkiago adierazita, indize orokorra 61,7ko balioa eskuratu du, aurreko hiruhilekoan jasotako emaitzaren aldean gorakada garrantzitsua izan duelarik.


Ikuspegi baikor hori enpresek ekonomia inguruneaz dituzten igurikimenetan oinarritzen da, baina indize orokorra osatzen duten gainontzeko aldagaietan ere nagusi da. Izan ere, enpresariek aurreikuspen onak dituzte fakturazioaz, jardueraz, eskarien bolumenaz, prezioez eta eragiketen errentagarritasunaz. Halaber, enpresek ekoizteko ahalmena handitzeko eta langileen kopurua igotzeko asmoa daukatela aitortu dute estatistika honetan.

Enpresarien igurikimenak. 2018ko II hiruhilekoa



Iturria: Laboral kutxa.


Enpresarien igurikimenak aldagaien arabera



Inkestan landu diren, eta indize orokorrean parte hartzen ez duten, beste galdera batzuek ere enpresarien baikortasuna 2018ko bigarren hiruilekoaz handitu dela iradokitzen dute. Enpresarien igurikimen baikorrak nagusi dira esportazioen bilakaeran, bezeroei kobratzeko epean eta banku finantzaketa lortzeko erraztasunean.

EAEko enpresek azken urtean egin duten berrikuntzari buruz, inkesta erantzun duten guztietatik %68,7k aitortu du I+G ekimenei bideratu duten salmenten portzentajea maila minimoetan (%0aren eta %0,5aren artean) zegoela. Aitzitik, enpresen %7,1ek %5 baino gehiago bideratu du jarduera horietara.

I+G ekimenei bideratu den salmenten ehunekoa



Banku finantzaketa lortzeko gaitasuna

